



EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


EAEko ekonomia %1,7 haziko da 2027an

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2027KO HAZKUNDEA

%1,7




Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenen arabera, BPGren hazkundera %1,9koa izango da 2026an eta %1,7koa 2027an, nazioarteko ziurgabetasunak eta, bereziki, Ekialde Hurbileko gatazka Iranen inguruan izan duen bilakaerak oraindik ere baldintzatzen duten ingurune batean. Izan ere, Iranen behin betiko ebazpena zailtzazkoa da, nahiz eta azken aurrerapenak egin diren.

Jardueraren hazkundera, batez ere, barneeskarian oinarrituko da 2026an, baina beheranz-

ko intentsitatearekin aurreikuspenaren horizontean zehar. Kontsumo pribatuak erritmo altuari eutsiko dio, erosahaltenaren berreskurapen partzialak lagunduta, nahiz eta inflazio presioek eta moneta baldintza ez hain hedakorrek haren aurrerapena mugatzera joko duten. Inbertsioak, bestalde, hazten jarraituko du, baina dezelerazio argia izango du finantza gogortzearekin eta Europako funtsei lotutako proiektuen bultzada txikiagoarekin lotuta.


GASTUA AZKEN KONTSUMOAN

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA


Urte arteko aldakuntza tasa



Aldiz, kanpo eskariak hazkundera murrizten jarraituko du bi urteetan. Esportazioen ahuleziak, lehiakortasun arazoek eta nazioarteko ziurgabetasunak azaltzen dute ekarpen negatibo hori, eta 2027an Europako ingurunea hobetzearekin soilik zuzenduko da partzialki. Testuinguru horretan, industriak hazkunde txikia izango du 2026an, hurrengo urterako aurreikusitako susperraldi sendoagoarekin. Enpleguak gora egiten jarraituko du, erritmo apalagoan bada ere: 2026an %1,1eko hazkundera aurreikusten da, 11.000 lanpostu berri ingururen baliokidea, 2027an %0,9 motelduko dena. Langabezia-tasa maila baxuetan mantenduko da 2026an, eta 2027an % 6,2ra jaitsiko da.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Ehunekoa



Iturria: Ekonomia Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.



Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila